

ARTE HEZKUNTZAKO ARLOAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Urteko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	Bentades Ikastetxea	Kodea:	014777	Ikasmaila:	1 maila.
Etapia:	Lehen Hezkuntza	Ziklo-maila:	1. zikloa, Lehen Hezkuntzako 1. maila		
<ul style="list-style-type: none"> • Arloa/Gaia • Eremua • Diziplinar-teko proiektua • Beste batzuk 	Arte Hezkuntza	Irakasleak:	Ander Goitia eta Aloixe Dominguez.		

Programazio didaktikoaren justifikazioa

Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, ikasgelaren testuingurua, ikastetxearen proiektuak, urteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak, etab.

Programazio didaktikoaren justifikazioa:

Urteko programazio didaktikoa irakaskuntzako jardura profesionalaren parte da, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua hobetzearekin lotuta dago. Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak balioesten dituen helburu bat da, garatu nahi diren konpetentziak aztertzen dituen. Ondorioz, ikasleek arrakasta izateko ahalik eta itxaropen handienak garatzeko irakasle talde batean hartzen diren erabakiak zehazten dituen.

Oinarrizko irakaskuntzaren amaierako ikasleen irteera-profila da Euskadi Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren printzipioak eta helburuak zehazten dituen tresna. Profilak identifikatu eta definitzen du, ikasleek beren prestakuntza-ibilbidearen aldi hori amaitzean lortu nahi dituzten funtsezko konpetentzien garapen-maila, etengabeko ikaskuntza-prozesuaren zati gisa.

Irteera-profilaren abiapuntua da konpetentzia giltzarrien ikuspegi estrukturala eta funtzionala aldi berean, eta hori eskuratzea ezinbestekotzat jotzen da ikasleek beren garapen pertsonalerako, beren bizitzako esparruetako egoerak eta arazoak konpontzeko, hobetzeko aukera berriak sortzeko, bai eta haien sozializazioa garatzeko, prestakuntza-ibilbidearen jarraipena lortzeko eta gizartean eta ingurune naturalaren eta planetaren zaintzan aktiboki txertatzeko eta parte hartzeko ere. Proiektu hori ikaskuntza desberdinen elementu artikulatzailea da, eta, horri esker, zenbait erronkei aurre egin ahal izango die.

Oinarrizko irakaskuntza arrakastaz gainditzen duen ikasle orok, eta, beraz, irteera-profila lortzen duenak, eskuratutako ikaskuntzak mobilizatzen jakitea bermatu nahi da, bizitzan zehar izango dituen erronka nagusiei erantzuteko. Horren barruan sartzen dira:

- Jarrera arduratsua garatzea, ingurumenaren degradazioaren kontzientzia hartuz, hura eragiten, larriagotzen edo hobetzen duten arrazoiak ezagutzan oinarrituta, ikuspegi sistemiko batetik, tokikoa zein globala.
- Kontsumo arduratsuekin lotutako alderdiak identifikatzea, norberaren eta guztion ondasunean duten eragina baloratzea, beharrak eta gehiegikeriak kritikoki epaitzea eta kontsumitzaile gisa dituen eskubideen urraketen aurrean kontrol soziala egitea.
- Bizi-ohitura osasungarriak garatzea, organismoaren funtzionamendua ulertuta eta organismoan eragina duten barneko eta kanpoko faktoreei buruzko hausnarketa kritikoa eginda, osasun publikoa sustatzeko erantzukizun pertsonala bere gain hartuta.
- Sentsibiltatea lantzea ekitaterik eza eta bazterketa egoerak atzemateko, kausa konplexuak ulertuta, enpatia- eta erruki-sentimenduak garatzeko.
- Gatazkak gizarteko bizitzaren berezko elementu gisa ulertzea, modu baketsuan konpondu beharrekoak.
- Egungo gizarteak eskaintzen dituen era guztietako aukerak modu kritikoan aztertzea eta baliatzea, bereziki kultura digitalarenak, onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizi-kalitate pertsonala eta kolektiboa hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.
- Ziurgabetasuna, erantzun sortzaileak artikulatzeko aukera gisa onartzea, berekin ekar dezakeen antsietatea maneiatzen ikasiz.
- Gizarte ireki eta aldakorretan lankidetzan aritzea eta elkarrekin bizitzea, aniztasun pertsonala eta kulturala aberastasun-iturri gisa baloratuz eta beste hizkuntza eta kultura batzuekiko interesa agertuz.
- Proiektu kolektibo baten parte sentitzea, bai tokiko eremuan, bai esparru globalean, enpatia eta eskuzabaltasuna garatuz

eta guztion onerako erabaki koherenteak bultzatuz eta hartuz.

- Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko aukera emango dioten trebetasunak garatzea, ezagutzan konfiantza izanik, garapenaren motor gisa, eta ezagutzaren arrisku eta onuren balorazio kritikoa eginez.

Erronka horiei eta beste batzuei erantzuteko, funtsezko konpetentzien azpian dauden ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak behar dira, eta curriculumak osatzen duten arlo, eremu eta jakintzagai guztietan lantzen dira. Horiek eskaintzen dituzten curriculum-elementuek ikasleei beren inguruan gertatzen dena ulertzen laguntzen diete, eta, horrela, egoera kritikoki baloratzeko eta behar bezala erantzuteko aukera ematen diete.

Hemen aurkezten den curriculumak konpetentzia-ikuspegia du, eta bertan, erronkei aurre eginez eskuratzen dira edukiak, kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Horrek ikaskuntzak eskuratzea eta mobilizatzea eta horiek transferitzeko gaitasuna bultzatzen du, eta, horrela, ikasleen prestakuntza-bilakaeran heldutasun-maila eta kalitate handiagoko ikaskuntza garatzen da.

Hurrengoak dira eskuratu beharreko funtsezko konpetentziak:

- **Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia:** Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak esan nahi du hainbat esparru eta testuingurutan modu koherente eta egokian elkarrekintzan jardutea, ahoz, idatziz, siglatuan edo multimodalean, eta hainbat komunikazio-helbururekin.
- **Konpetentzia eleaniztasuna:** Konpetentzia eleaniztunak hainbat hizkuntza, ahozkoak edo zeinuzkoak, ikasteko eta komunikatzeko modu egoki eta eraginkorrean erabiltzea eskatzen du.
- **Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzako konpetentzia:** Matematikarako konpetentziak eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentziak mundua ulertzea dakar berekin, metodo zientifikoak, pentsamendu eta irudikapen matematikoak, teknologia eta ingeniartzako metodoak erabiliz ingurunea modu konprometituan, arduratsuan eta jasangarrian eraldatzeko.
- **Konpetentzia digitala:** Konpetentzia digitalak teknologia digitalak modu seguruan, osasungarrian, jasangarrian, kritikoa eta arduratsuan erabiltzea eskatzen du, ikasteko, lanerako eta gizartean parte hartzeko, bai eta horiekin elkarreragitea ere.
- **Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa:** Konpetentzia pertsonalak, sozialak eta ikasten ikastekoak berekin dakar nor bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna, nor bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta

etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko.

- **Herritartasunerako kompetentzia:** Herritartasunerako kompetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta.
- **Ekintzailetza kompetentzia:** Ekintzailetzarako kompetentziak aukera eta ideiekin jarduteko bizi-ikuspegia garatzea eskatzen du, beste pertsona batzuentzako baliozko emaitzak sortzeko beharrezkoak diren ezagutza espezifikoak erabiliz.
- **Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia:** Kontzientzia eta kultura adierazpenetarako kompetentziak berekin dakar ideiak eta esanahia sormenez adierazteko eta kultura desberdinetan komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea.

Justifikazio legala aldera batera utziz, eskolako testuinguruari buruz hitz egingo dugu. Bentades Ikastetxea Mungian kokatzen den eskola bat da, uribe kosta zonaldean. Eskola honetako familiak maila sozioekonomiko ertaina dute eta datu soziolinguistikoei dagokienez esan dezakegu nahiz eta Mungia herri euskalduna izan, gero eta etorkin gehiago daudela eta hau ikastetxean isladatzen da.

Ikastetxe honetan 700 ikasle inguru ditugu haurtzaindegitik hasi eta derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatu arte. Maila bakoitzean bi lerro daude. Ikasketak D ereduan gauzatzen dira.

Ikastetxeko baliabide materialak hurrengoak dira Lehen Hezkuntzan. Ikasle talde bakoitzak bere gela dauka eta horrez gain, musika gela, plastika gela, liburutegia, jantokia eta areto nagusia ditugu. Solairu batetik bestera igotzeko behar izatekotan igogailu bat daukagu. Beste alde batetik, heziketa fisikoa egiteko patioaz gain, eskolako sotoa eskuragarri daukagu. Hura espazio oso handia eta estalia da. Normalean heziketa fisikorako erabiltzen da baina antzerkiak edo tailerrak egiteko ere erabilgarria izan daiteke.

Beste alde batetik, gela bi erabiliko dira Arte Hezkuntzako arloa garatzeko. Bata, Musika gela izango dena eta bestea, ikasleen ohiko gela, Plastika egiteko. Musika gelako baliabide materialak honako hauek dira; arbel digitala, musika instrumentu desberdinak, pentagramaren arbela, ikur musikalen hainbat poster, margoak, bozgoragailuak, irakaslearen ordenagailua eta ikasleentzako guk sortutako txostenak. Bestetik, plastikako errotulki, pintzel, tenpera,...hau da, proiektu bakoitzaren arabera behar izango dugun materiala.

Baliabide pertsonalei dagokienez, Lehen Hezkuntzan 15 irakasle daude tutore eta irakasle espezifikoak gehituz. Beste alde batetik, orientazio talde bat dugu eta bertan 6 espezialista daude. Horrez gain eskolako orientatzaile eta psikologoa dugu behar izatekotan. Irakasleak ez diren beste profesional batzuk ere lan egiten dute eskolan gure egunerokotasuna errazago izateko, adibidez: jantokiko langileak, eskolako atezainak, idazkariak, zuzendariak, eta abar.

Ikasle batzuen beharrezanean erantzuna emateko Berritzegunetik ere zenbait espezialista etortzen dira eskolara, adibidez: logopega, fisioterapeuta, eta abar.

Eskolan zenbait proiektuetan murgilduta gaude baina maila honetan ikasleek ez dute denetan parte hartzen. Hurrengoak dira:

- Agenda 30.
- Euskera eta normalkuntza
- Hizkuntza hirueleduna
- Bizikidetzak
- IKT eta metodologia berriak
- Hezkidetzak

Pasaden kurtsoko urteko memorian argitaratu zen bezala, hurrengoak dira etapa moduan ikasturte honetara begira planteatu genituen hobekuntzak:

- Metodologiari dagokionez, berrikuntzak sartzen jarraitu nahi dugu eta hasitako hobekuntza bidearekin jarraituko da.
- Euskerarekin lotuta gabezia ugari identifikatu ditugu eta hauei erantzuteko metodologia aldaketa bat proposatu da. Kurtso honetan zehar, irakasleok sortuko dugu materiala ziklo bakoitzari egokituta. Era horretan, ikasleak modu dinamiko eta erakargarrian hizkuntza bereganatu dezaten.

Programazio honen kalitatea eta emaitza bermatzeko, helburu errealistak ezarri behar ditugu. Horretarako irakasgai hau ematen duten irakasleak batu dira eta haien ikasleen errealitateara moldatu.

Kurtso honetan, beste guztietan bezala bi lerro ditugu. Gela batean 17 ikasle daude eta bestean 16. Ikasle gehienak bertan jaiok dira nahiz eta ikasle askoren kasuan testuinguru euskaldun bat ez izan, zenbait atzerritar daude maila honetan, batzuk kurtso honetan heldu dira eta beste batzuk ihaz.

Beste alde batetik, premia bereziko 3 ikasle ditugu gela bien artean banatuta. Hauek J.P.P.a (jarduera plan pertsonalizatua) dute eta moldaketak egiten zaizkie, bakoitzari bere beharrianetara. Hala ere, ikasle hauek orientazio departamentuko irakasleengatik ere laguntza jasotzen dute gela barnean, haien ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

Gure helburua ikasleek era dinamiko batean oinarritzko jakintzak eta konpetentziak lantzea da pertsona arduratsu, autonomo, sortzaile eta kritikoak bihurtzeko. Bide hori jarraitu ahal izateko programazio hau haien beharrianetara moldatuta dago.

Curriculum-plangintza				
Ikaskuntza egoeren izenburua (IkE)	Arloak, gaiak, eremua	Konpetentzia espezifikoak <i>(Adierazi lotutako irteera-profilen deskribatzaile operatiboak)</i>	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko ezagutzak
LEHENENGO HIRUHILEKOA				
Soinua eta isiltasuna	Musika	3 HKK1, KE1, KD2, KPSII5, HK2, EK1,	3.1 3.2 3.3	A. Musika hezkuntza

		KAKK3, KAKK4.		A 0.1 A 0.2 A 0.3 A 0.4 A 0.5 A 1.2 A 1.4 A 1.5 A 1.6 A 2.1 A 2.2
Musikaren ezaugarriak: luzea - laburra, azkarra - geldoa, altua - baxua eta ozen eta leuna.	Musika	3 HKK1, KE1, KD2, KPSII5, HK2, EK1, KAKK3, KAKK4.	3.1 3.2 3.3	C. Ikus- entzuneko Hezkuntza C 1.1 D. Arte Eszeniko eta Performatiboetako Hezkuntza D.1.1 D.2.1
Meliren orrimarkatzailea	Plastika	4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4	4.2 4.3	B. Plastika eta Ikus Hezkuntza B.1.3 B.1.4 B.2.2
Kolore Primarioak	Plastika	1 KE3, STEM1, KD1,	1.1	

		KPSII3, HK1, EK2, KAKK1, KAKK2.	
		2 HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.	2.2
Miróren "los peces"	Plastika	1 KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2, KAKK1, KAKK2.	1.1
		2 HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.	2.2
Miróren imana	Plastika	1 KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2, KAKK1, KAKK2.	1.1
		2 HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.	2.2
		4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4	4.1 4.2 4.3
Arimen gaua (mamua)	Plastika	4 HKK1, KE3, STEM3,	4.1 4.2

		HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4	4.3	
BIGARREN HIRUHILEKOA				
Zeinu musikalak eta errtimoak.	Musika	3 HKK1, KE1, KD2, KPSII5, HK2, EK1, KAKK3, KAKK4.	3.1 3.2 3.3	A. Musika hezkuntza A 0.1 A 0.2 A 0.3 A 0.4 A 0.5 A 1.2 A 1.4 A 1.5 A 1.6 A 2.1 A 2.2
		4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4.	4.1 4.2 4.3	
Gorputz perkusioa	Musika	3 HKK1, KE1, KD2, KPSII5, HK2, EK1, KAKK3, KAKK4.	3.1 3.2 3.3	C. Ikus- entzuneko Hezkuntza C 1.1 D. Arte Eszeniko eta Performatiboetako Hezkuntza D.1.1

				D.2.1
Gabonetako zuhaitza	Plastika	1 KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2, KAKK1, KAKK2.	1.1	B. Plastika eta Ikus Hezkuntza B.1.2 B.1.3 B.1.4
		2 HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.	2.2	
		4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4	4.1 4.2 4.3	
Animalien txostena	Plastika	1 KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2, KAKK1, KAKK2.	1.1	
		2 HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.	2.2	
		4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4	4.1 4.2 4.3	
HIRUGARREN HIRUHILEKOA				

Nota musikalak	Musika	3 HKK1, KE1, KD2, KPSII5, HK2, EK1, KAKK3, KAKK4.	3.1 3.2 3.3	A. Musika hezkuntza A 0.1 A 0.2 A 0.3 A 0.4 A 0.5 A 1.2 A 1.4 A 1.5 A 1.6 A 2.1 A 2.2
Musika instrumentuak	Musika	3 HKK1, KE1, KD2, KPSII5, HK2, EK1, KAKK3, KAKK4.	3.1 3.2 3.3	C. Ikus- entzuneko Hezkuntza C 1.1 D. Arte Eszeniko eta Performatiboetako Hezkuntza D.1.1 D.2.1
Landareen kutxa	Plastika	1 KE3, STEM1, KD1,	1.1	B. Plastika eta Ikus

		KPSII3, HK1, EK2, KAKK1, KAKK2.		Hezkuntza B.1.1 B.1.2 B.1.3 B.1.4
	2	HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.	2.2	
	4	HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4	4.1 4.2 4.3	

Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, anistazunari erantzuna, etab.

A. Jarraibide metodologikoak:

A.1. Eredu metodologikoak: Metodologia proiektutan oinarritutako ikaskuntzan oinarrituko da. Ikasleek ingurunea esploratuko dute, beren mailari egokitutako ikerketa zientifikoko metodoak erabiliz.

A.2. Multzokatzeak: Multzokatzeak malguak izango dira, proiektuaren fase desberdinetara egokituz. Talde txikietan antolatuko dira ideien trukea sustatzeko eta proiektua aurrera eraman ahal izateko. Horrez gain, banaka ere lan egingo dute, non bakoitzak bere trebeziak praktikan jarriko dituen.

A.3. Espazioak: Ikasketa-espazio nagusia musika arloa jorrazteko musika gela izango da eta plastikaren inguruko lanak aurrera eramateko ikasgela ohikoa izango da. Horrez gain, behar izatekotan beste espazioen batera mugitu gaitezke,

behrrizanen arabera.

A.4. Baliabideak: Baliabide desberdinak erabiliko dira, besteak beste:

- Material multimedia eta interaktiboa (bideoak, abestiak,).
- Musikako txosten fisikoa.
- Kanpo materialak, hala nola behaketa zuzenerako beste material batzuk.

B. Aniztasunari arreta:

Ikasleen aniztasunari erantzuteko, edukia eta jarduerak egokituko dira, ikasle bakoitzak bere ikaskuntza-eritmoaren eta premien arabera helburuak lor ditzan. Dibertsifikazio estrategiak erabiliko dira, hala nola laguntza-materialak, ikusizko laguntzak eta azalpen egokituak. Egia bada ere talde-lanak izango direla gure oinarri, gelan landutakoa modu bisual eta argian eskuragai izan dezaten, mapa kontzeptualak banatuko zaizkie ikasle guztiei. Hauek ere baliagarrik izango dira etxean gelan landutako birpasatu ahal izateko. Halaber, aurrerapen azkarra duten ikasleei jarduerak zabaltzeko aukera eskainiko zaie. Aniztasunari arreta horretan ikasle guztiek ekarpena egin dezakete, beren gaitasunen arabera.

Curriculum-a hasiera batetik egokitua egon behar da ikasleetara eta ez alderantziz. Horrela, curriculum pertsonalizatu eta praktikoagoa lortuz, non ikasle guztien beharrak erantzuten eta asetzen diren. Beraz, hori lortzeko Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala-ren (IDU) 3 printzipioak martxan jarri behar dira.

I. printzipioa: Ikasleei erraminta eta bide desberdinak emango zaizkie autonomiaz informazioa eta oinarritzko jakintzak eraikitzeko.

II. printzipioa: ikasleek ikasitakoa era desberdinetan adierazi ahalko dute: idatziz, ahoz eta abar. Bakoitzaren beharrietara moldatuko gara eta baita ebaluazioaren zein momentutan gauden.

III. printzipioa: ikasleei erronka ezberdinak aurkeztuko zaizkie era desberdinetan parte hartu ahal izateko eta era horretan

ikasle guztiak ikaskuntza prozesuan konprometitu eta motibatu daitezke era desberdinetan.

C. Ebaluazioa :

Ebaluazioa jarraia izango da, eta honela burutuko da:

- Behaketa zuzena, jardura eta proiektuetan ikasleek duten errendimendua neurtzeko.
- Ebaluazio errubrikak erabiltzea, kompetentzia zehatz eta jarrerazkoak baloratzeko (erantzukizuna, elkarlana...).

Gainera, ebaluazioaren barne dira ebaluazio kualitatibo eta kuantitiboak, edukien ulermena eta kompetentzien garapena neurtzeko.

D. Errefortzurako estrategiak eta berreskurapen-planak:

Kompetentzien ulermenean eta garapenean zailtasunak dituzten ikasleei laguntza eskainiko zaie:

- Tutoretza pertsonalizatuak eskaintzea, oinarrizko kontzeptuak berrikusteko.

Ebaluazio-erabakiak, ebaluaziotik ateratako ondorioak eta kalifikazio-irizpideak

Ebaluazioa

- Helburua (formatiboa, akreditatzailea)
- Finkatutako denborak (hasieran, prozesuan zehar, amaieran)
- Ebaluatzeko teknikak, tresnak eta erramintak
- Eragileak (autoebaluatzea, elkarri

- Helburua ebaluazio formatiboa izatea da.
 - Ebaluazio hezitzailea:
 - Ikaskuntza- irakaskuntza prozesuan zehar.
 - Informazio bilketa jarraia.
 - Ikaskuntza- irakaskuntza gidatzeko eta ikasleen jarduna hobetzeko erabiliko da.
 - Ebaluazio hezigarria: ikasleek bideratua.
- Finkatutako denborak: ebaluazioa prozesuaren hasieran, prozesuan zehar eta

<p>ebaluatzea eta heteroebaluatzea)</p>	<p>amaieran izango da.</p> <ul style="list-style-type: none">● Ebaluatzeko teknikak:<ul style="list-style-type: none">○ Behaketa etengabeen oinarrituta○ Banakako zein taldeko jarduerak○ Froga.<ul style="list-style-type: none">■ Soinua eta isiltasuna■ Musikaren ezaugarriak: luzea - laburra, azkarra - geldoa, altua - baxua eta ozen eta leuna.■ Zeinu musikalak eta errtimoak.■ Gorputz perkusioa■ Nota musikalak.■ Musika instrumentuak.● Eragileak:<ul style="list-style-type: none">○ Heteroebaluazioa.
<p>Ebaluazioaren ondorioak:</p> <ul style="list-style-type: none">● Kalifikazioa	<p>Ikasle baten ikaskuntzari buruzko ebidentzia asko eta anitzak eskuratu eta gero, ebaluaziotik eratortzen den kalifikazioa lortuko dugu.</p> <p>Konpetentzia espezifikokoak oinarri hartuta egingo da eta hauen zehaztapen maila lorpen adierazleak izango dira.</p> <p>Ebaluaketa bakoitzaren amaieran boletin bate jasoko dute familiek. Boletin honetan irakasgai honetako konpetentzia espezifikoetan lortutako maila agertuko da: maila aurreratua, maila ertaina edo hasierako maila; kolorez adierazita.</p> <p>Honez gain, kurtso bukaeran eta Hezkuntza sailak ezarrita notak era kualitatibo baten jarri behar ditugu Hezkuntzako plataforman.</p>

Kalifikazio-irizpideak

Ikastetxearen autonomiaren baitan, curriculumaren hainbat erabaki curricular hartuko dira, hala nola:

- Ikas-maila bakoitzerako lorpen-mailak erabakitzea
- Ebaluazio irizpideen jardun maila adostea.
- Gaitasunen garapen-maila adostea
- Berariazko gaitasunen ponderazioa,
- ebaluazio-irizpideak... definitzea)

Azken kalifikazioa konpetentzia espezifikoen ponderazioarekin lortuko da. Ondoren adierazten den konpetentzia espezifikoen ponderazioa hartuko da kontuan.

* *Konpetentzia espezifikoko guztien ponderazioa ez da zertan berdina izan.*

ZER	PORTZENTAIA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK
1. HIRUHILEKOA		
1. Proiektua: Soinua eta isiltasuna		
Soinua eta isiltasuna.	%25	3
2. Proiektua: Musikaren ezaugarriak (luzea-laburra, azkarra-geldoa, altua-baxua eta ozen-leun		
Soinuaren ezaugarriak	%25	3
1. Proiektua: Joan Miró		
1. Erronka	%10	4
2. Erronka	%10	1,2
3. Erronka	%10	1,2
4. Erronka	%10	1,2,4

2. Proiektua: Mamuak		
1. Erronka	%10	4
2. HIRUHILEKOA		
3. Proiektua: Zeinu musikalak eta erritmoak		
Zeinu musikalak eta erritmoak	%25	3
4. Proiektua: Gorputz perkusioa		
Gorputz perkusioa	%25	3
3.Proiektua: Gabonetako zuhaitza		
Gabonetako zuhaitza	%50	1,2,4
4.Proiektua: Animalien txostena		
Animalien txostena	%50	1,2,4
3. HIRUHILEKOA		
5. Proiektua: Nota musikalak		
Nota musikalak	%25	3
6. Proiektua: Musika instrumentuak		
Musika instrumentuak	%25	3
7. Proiektua: Landareen kutxa		

	Landareen kutxa	%50	1,2,4
--	-----------------	-----	-------

1.ERANSKINA: KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Kultura, garai eta estilo desberdinetako arte-proposamenak ezagutzea, harrera aktiboaren bidez eta tresna digitalak erabiliz, jakin-mina, sentsibilitatea, errespetua eta pentsamendu kritikoa garatzeko.
2. Askotariko inguruneetako ondarea osatzen duten kultura- eta arte-adierazpenei buruz ikertzea, metodo zientifikoa erabiltzen hasiz eta hainbat bide eta baliabide erabiliz, norberaren pentsamendua eta kultura-nortasuna zenbait testuingurutan garatzeko.
3. Soinuaren, irudiaren, gorputzaren eta baliabide digital eta multimodalen aukerekin esperimintatzea, ikerketa-jardueren eta esperientzien bitartez, ideiak, sentimenduak eta emozioak sormenez adierazteko eta komunikatzeko.
4. Kultura- eta arte-produkzioen diseinuan, elaborazioan eta zabalkundearen parte hartzea, prozesuari balioa emanez eta azken emaitza lortzeko zenbait rol bere gain hartuz, sormena, autorearen nozioa eta pertinentziaren zentzua garatzeko.

2.ERANSKINA: EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. KONPETENTZIA

1.1 Bere ingurunetik hurbil dauden zenbait korrante, estilo eta generotako askotariko kultura- eta arte-adierazpenak ezagutzea, horiekiko interesa nabarmenduz harrera aktiboaren bidez eta genero-ikuspegia txertatuz.

1.2 Hautatutako hurbileko kultura- eta arte-adierazpenak ahoz deskribatzea, horien ezaugarriak modu gidatuan miatuz, jarrera irekia eta interesa erakutsita.

2. KONPETENTZIA

2.1 Oinarrizko estrategiak erabiltzea kultura- eta arte-adierazpenei buruzko informazioa modu gidatuan bilatzeko, sarbide errazeko kanal eta baliabide analogiko eta digitalen bitartez, bakarka eta kolaborazio-lanean.

2.2 Zenbait kultura- eta arte-adierazpeni buruz jasotako informazioa antolatzea eta ulertzea, modu gidatuan, sentsazioak errespetuz eta interesez partekatuz eta horien arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aurkituz.

3. KONPETENTZIA

3.1 Gorputzaren eta arte-adierazpeneko zenbait tresnaren adierazpen- eta komunikazio-aukera batzuk oinarrizko moduan erabiltzea, aplikazio praktikoaren bitartez, norberaren gaitasunetan konfiantza erakutsita.

3.2 Oinarrizko zenbait adierazpen-proposamen sortzea, esperimentazio librearen bitartez, norberaren sorkuntza gozatzuz eta baloratzuz.

3.3 Arte-proposamen pertsonalak modu gidatuan partekatzea, ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko, besteen proposamenekiko errespetua eta enpatia erakutsiz.

4. KONPETENTZIA

4.1 Oinarrizko kultura- eta arte-produkzioen diseinuan modu gidatuan parte hartzea, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegitik kolaborazio-lanean jardunez.

4.2 Sorkuntza-prozesuan parte hartzea, zenbait arte-hizkuntzatako oinarrizko elementuak erabiliz eta errespetu-jarrera erakutsiz.

4.3 Sormen-esperientziak partekatzea, prozesuaz zein lortutako azken emaitzaz gozatzuz, eta besteen emozioak baloratzuz.

3.ERANSKINA: OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Musika Hezkuntza

0. Lau multzoetako jakintza komunak

- A.0.1. Arte-sorkuntzari eta -interpretazioari lotutako lanbideak.
- A.0.2. Arte-esparruko oinarrizko hiztegi espezifikoa. Ezagutza eta erabilera
- A.0.3. Zenbait espaziotan arte-proposamenak hartzeko oinarrizko portaera-arauak.
- A.0.4. Arte-esperientziaren bitartez oinarrizko emozioez jabetzea.
- A.0.5. Baliabide digitalak: grabatzeko aplikazio informatikoak

1. Pertzepzioa eta analisisia

- A.1.1. Zenbait korrante estetiko, jatorri eta garaitako musika-proposamen bokal eta instrumentalak. Grabazio eta kontzertu entzunaldiak.

A.1.2. Entzumen-hezkuntza: soinu-ingurunearen aurkikuntza. Soinua eta bere oinarrizko nolakotasunak: entzumen-diskriminazioa. Entzumena eta barne-memoria.

A.1.3. Soinu-aniztasuna zenbait grafia ez-konbentzionalen bitartez adierazteko estrategiak.

A.1.4. Ahotsa eta musika-instrumentuak. Familia nagusiak. Soinu-objektuak. Kotidiafonoak. Euskal Herriko instrumentu tradizionalak.

A.1.5. Izaera eta tempoaren ulermena abestiaren bitartez.

A.1.6. Isilunea: entzunaldian eta musika-praktikan zehar arreta iraunarazteko elementu eta baldintza ezinbestekoa.

2. Sorkuntza eta interpretazioa

A.2.1. Instrumentu-, ahots- eta gorputz-praktika: miatu eta soinu- eta adierazpen-aukeretatik abiatuta interpretatzeko estrategiak.

A.2.2. Oinarrizko instrumentu-, ahots- eta gorputz-proposamenen imitazioa.

B. Plastika eta Ikus Hezkuntza

1. Pertzepzioa eta analisisia

B.1.1. Ikus-kultura. Irudia gaur egungo munduan. Interpretazio-prozesua: behaketa gidatua eta gogoeta.

B.1.2. Plastika- eta ikus-proposamenak. Kultura- eta arte-espazioak.

B.1.3. Ikus-hizkuntzaren konfigurazio-elementuak: oinarrizko esperimentazioa.

B.1.4. Plastika- eta ikus-adierazpenean erabiltzen diren materialak, tresnak, euskarriak eta oinarrizko teknikak.

2. Sorkuntza eta interpretazioa

B.2.1. Plastika-adierazpeneko bitartekoak, euskarriak eta materialak: esperimentazioa. Bi dimentsioko eta hiru dimentsioko oinarrizko teknikak marrazki eta modelaketa errazetan.

B.2.2. Sorkuntza-prozesuaren faseak: plangintza gidatua eta esperimentazioa. Kolaborazio-egikaritzea. Prozesuaren zein azken produktuaren balorazioa eta interesa.

C. Ikus-entzunezko Hezkuntza

1. Pertzepzioa eta analisisia

C.1.1. Iraupen laburreko ikus-entzunezko proposamenak, ikasleen hurbilekoak.

2. Sorkuntza eta interpretazioa

C.2.1. Bilatzeko eta iragazteko oinarrizko estrategiak.

C.2.2. Asmo komunikatiboa duten istorio errazak konposatzea, berregiteko eta kontatzeko.

D. Arte Eszeniko eta Performatiboetako Hezkuntza

1. Pertzepzioa eta analisisia

D.1.1 Gorputz-adierazpenari eta arte eszenikoei lotutako oinarrizko adierazpenak.

2. Sorkuntza eta interpretazioa

D.2.1. Gorputza eta bere aukera motorrak, komunikatzeko eta dibertitzeko baliabide gisa. Dantza, dramatizazioa eta antzerki-emanaldia.

D.2.2. Oinarrizko drama- eta dantza-teknikak. Adierazpen-hizkuntzaren oinarrizko nozioak.